



# HMBERRIAK

HERRI MUSIKAREN TXOKOAREN BULETINA

2014ko martxoa

49. zenbakia

## SOINUENEAREN LAGUNAK

*Etenik gabe garatzen ari den proiektu baten sortzea.*

Bi urte badira Soinuenea Fundazioa martxan jarri zela eta hamabi Herri Musikaren Txokoa inauguratu zela. Bide horretan ekitaldiak ugarituz joan dira, Fundazioaren instalazioetan egin direnak nahiz kanpokoak, beti ere herri-musikaren inguruan.

Bai gauzatu diren proiektuak eta bai horien antolaketak eman dituen lanak, era askotakoak izan dira. Hasteko, publikazioak aipatu beharrean gaude, horiek direlako egileen ikerkuntza- eta dibulgazio-lanaren testigantzarik onena; batzuetan, urteroko Jardunaldien babesa izan dute, bertan eztabaidatu baitira kulturaren barruan giltzarri diren hainbat eta hainbat gai, esaterako: egile-eskubi-deak, artxiboen biltegiatzea –tresna nahiz euskarrien gainean eztabaidatuz–, eta musikaren zeregina festetan eta Inauterietan.

Baina ez dira hor bukatzen museoaren lanak, bere izaeraren baitan horiek beharrezkoak diren arren. Kontzertuetan sortzen den giroa da doinu eta abestiez haratago doan erlazio-prozesu baten gailurra, era askotako taldeen arteko elkarlana eta topagunea bideratzen duena: erlazio-prozesu horretan parte hartu dute, azken urteetan, Euskal Herritik nahiz kanpotik kontzertuetara etorritako talde eta norbanakoek, baita gonbidatu guztiek ere.

Hori guztia aski ez eta, dokumentazio-artxiboa, publikazioak eta audio nahiz bideo-grabazioak neurrigabe hazi dira. Audizioak, Jardunaldiak eta hainbat jai-egunetako ekitaldiak dira material horretan agertzen diren elementuetako batzuk; denboran irauten duen ondarea osatzen dute.

Orain arteko bideari segitzeko asmoz eta, ahal den heinean, lan-ildo berriak zabaldu asmoz, Soinuenea

Fundazioak etorkizunerako proiektua gauzatu nahi du, kolaboratzaileen zerrenda handituz eta laguntza bilatuz; bai une jakinetarako laguntza, eta baita laguntza iraunkorra ere.

Behar horri erantzuteko intentzioz, museoan lanean dabiltzan profesionalak eta Fundazioaren ohiko kolaboratzaile batzuk elkartzeko hasi dira. Orain arte, bi bilera izan dira; azkenekoa, aurtengo urtarrilaren 11n. Aurreantzean eginbideak zein izango diren zehaztea eta lan pilaketari irtenbidea aurkitzea dira lehentasunak.



Oraingoz, eta behin-behinekoz, “Soinuenearen Lagunak” izena eman zaio talde horri, eta bi lan-ildo definitu dira egungo nahiz etorkizuneko partaideentzat.

Aurreneko lan-ildoa, hala nahi duten bolondresak hurrengo proiektuetako batean edo batzuetan ariko dira lanean:

\* Hiru hilean behingo Buletina egi-tea (bi hizkuntzetan).

\* Urtero antolatzen diren Jardunaldien antolaketan laguntzea.

\* Musika emanaldiak definitzea eta gauzatzea.

\* Herri Musikaren Bilduma saileko

publikazioak prestatzea eta gauzatzea (10.a da atera den azken zenbakia).

\* Antolatzen diren zenbait ekitaldi bidez grabatzea.

\* Datu Basean fitxak betetzea eta datuak sartzea.

Bigarren lan-ildoak, “Soinuenearen Lagunak” elkartearantzat diru-laguntza sistema bat martxan jartzea da, kostu gutxiko harpidetza bidez egingo litzatekeena; trukean, diru-emailek hainbat onura izango lituzkete, esaterako: deskontu nahiz pribile-

jioak, bai antolatzen diren ekitaldietan, eta bai museoan sartzerako garaian.

Behin-behineko Batzorde Eragilea, hurrengo hauek osatzen dute, alfabeto-ordenan: Julio Abascal, Orkatz Arbelaitz, Juan Mari Beltran, Emilio Xabier Dueñas, Iñaki Eguren, Xabier Etxabe, Ane Gil, Josu Larrinaga, Aritz Martín eta Joseba Zabaleta.

Batzorde horrek lan-eskema bukatutzat ematen duenean Buletin honetan bertan jakinaraziko da, denek izan dezazuen funtzionalitatearen berri eta, hala nahi izanez gero, elkartearen kide izateko izena eman dezazuen.

# KONTZERTUAK SOINUENEAN

## UDABERRIKO KONTZERTUA

2014ko martxoaren 15ean - 18:30tan Soinuenean

**SARRERA**  
**5 EURO**

### NIAMH NÍ CHARRA BAND

**FIDDLE, KONTZERTINA,  
BODRHÁN ETA BOUZOUKIA**



Niamh Ní Charra Killarney herrian, Irlandako hego mendebaldean, jaio zen. 4 urterekin biolina jotzen hasi zen. Irlandako txapelduna biolinarekin zein kontzertinarekin, Chieftains edo Noel Hill musikari goraiapatuekin egin du lan. Frantzia, Ingalaterra eta Alemaniako festibaleetan ez ezik, mundu guztian zehar ibili da. Riverdance ikuskisunaren 1º biolin bakarlaria izan zen 8 urtetan zehar 2500 kontzertutik gora emanaz. Carlos Nuñez-en bandan ere aritzen da.

Musika irakaslea den baitan, *eAn Culturlann, Comhaltas Ceoltóirí Éireann*-en egoitza ofizialean, musikari profesionali bideratutako taillerak ematen ditu.

Bere lehenengo bakarkako diskoa, *Ón Dá Thaobh / from Both Sides*, 2007an argitaratu zuen. Kritikarien aldetik oso harrera ona izan zuen eta MOJO aldizkariak urte hartan argitaratu zuen 10 folk disko onenen zerrendan ageri zen album irlandar bakarra zen. Erresuma Batuko The Irish World aldizkariak 2008an banatu zituen sarietan folk musika egiten duen talde onenari eman zioten “*Best Trad Music Act 2008*” saria jaso zuen eta egoitza Amerikan duen Irish Music Association elkarteak urte berean “*Best Fiddle/Violin 2008*” saria eman zion.

Bere bigarren diskoa, *Happy Out*, New Yorkeko Earle Hitchner kazetariak 2010 urteko 30 lan aipagarrien zerrendan sartu zuen eta Irish Music Magazine aldizkariak “*ziurrenik 2010eko disko onena*” zela idatzi zuen. Irlandar Musikaren Sarietan (Irish Music Awards) 2011ko Bakarleri Onenari ematen zaion saria jasotzeko izendatu zuten. Bill Margeson musika kritikari entzuteak biltzen duen LiveIreland Musika Sarietan 2012ko Emakumezko Musikari Onenaren saria jaso zuen eta berriki, urte honen hasieran, 2014ko Emakumezko Musikari Onenaren saria berriz jaso du.

Kaleratu duen azken diskoa *Cuz* izenekoa da, ezizen hori hartzen zuen Terry Teahan musikari irlandarra omentzen duena. Irlandan zein nazioarte mailan oso harrera ona izaten ari da hainbat musikari gonbidaturen partaidetzarekin grabatu zen disko hau. Horren adibide bat da Estatu Batuetako Chicago hirian banatzen diren Tradition in Review (TIR) sarietan 2014ko Disko Instrumentala izendapena jaso duela.

Soinuenean Niamh Ní Charrak Dominic Keogh bodhrán jolearekin eta Paddy Kerr bouzouki jolearekin eskainiko duen emanaldian *Cuz* diskoa izango da oinarri.

## KONTZERTU DIDAKTIKOA FAMILIAN

### NIAMH NÍ CHARRA Irlandar biolin eta kontzertina

*Lekua:* Soinuenea  
Ergoien auzoa  
20180 Oiartzun

*Eguna:* 2014-03-15  
*Ordua:* 12:30

Arratsaldean Udaberriko Herri Musika Kontzertuan parte hartuko duen Niamh Ní Charra-k Oiartzunen izango den denboraren zati bat kontzertu didaktikora datozen hurrei Irlandako musikaren zati bat erakusteko erabiliko du. Hala, biolinez, kontzertinez edota kantatuko doinuak entzuteko aukera izango dute gazteenek.



# IBON KOTERON

## Alboka



Bilbotar musikari hau 1967an jaio zen. Urte berean sortu zen botxoko herrian Alboka, Txistu eta Pandereta Udal Akademia, zeinetara joango zen ia desagerturiko alboka ikastera aspaldiko 1987an. Ordudanik neolitik datorren soinu tresna berezi horren suspertzearen bultzatzaile nagusieta-koa izan da, nahiz eta gaita zein dul-tzainaren espezialista ere baden eta noizean behin bestelako soinu tresnak ere jotzen dituen, hala nola txistua, zeharkako flauta edo zerra musikala.

Artista eta talde zerrenda amaiga-be batekin grabatu eta zuzenean jo izan du –Tapia ta Leturia, Tomás San

Miguel, Tejedor, Berrogüetto, Oreka TX, Xiradela, Fran Lasuen, Matt Darriau & Paradox Trio, The Clarinet Trio, Ivo Papasov & ZigZag Trio, Heikki Syrjänen & Pekka Westerholm (The World Mänkeri Orchestra), Sergei Starostin (Farlanders) & Sergei Kleveny (Farlanders, Maleridja)–, oso bereziki Kepa Junkerarekin. Honen taldeko partaide gisa eskenato-kian izan da Bulgarka, La Bottine Souriante, Hedningarna, Dulce Pontes, Joxe Manuel Budiño, Amaia Zubiria, Oskorriko lagunekin... eta antzeko artistekin.

Ibonek eta Kepak 1996an argitara-

tu zuten *Leonen Orroak* albumak albokaren birsortzea markatu zuen XXI. mendeko egunsentian; oraingo albokari gazte guztientzako erreferentzia da. Ondoren *Airea* (2004) helduko zen, soinu tresna horri formatu handiko lehen kontzertuak ekarriko zizkiona.

Leonen Orroak Kultur Elkarteak lagunekin elkarlanean 2009 urtean *Albokak 2.1* argitaratu zuen. Asmo handiko disko-liburua, soinu zein teoria aldetik alboka hobeto ezagutu nahi duenarentzat kontuan hartu beharreko erreferentzia izateko helburuarekin sortua izan zen.

### Udaberriko kontzertua Soinuenea - Herri Musikaren Txokoan **AFARIA KONTZERTU ONDOREN**

Afaria Auzokalte Elkarteak izango da, kontzerturako erabiliko den areto berdinean. Bertan musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko aukera izango da. Izena emateko komeni da lehen bait lehen deitzea, lekua mugatua baita.

Prezioa (kontzertua barne): 20 euro.



### kontzertu honen laguntzaileak:



## GAITERO ETA DULTZAINEROAK MARTXOAREN SAN HERNANIN

Hernaniko dultzaineroek Alberite, Deba, Lizarra eta Oiartzungo gaita, dultzaina eta danbor taldeekin batera antolatu dute topaketa. Anaiarteko bilera honi hasiera goizeko 10:30etan emango diote udaletxearen aurreko Gudarien Enparantzan elkartuta. Handik abiatuta kaskoan barrena bisita gidatua egingo dute.

Hernaniko kaleak musikaz beteko dituen kale-buelta eguerdiko 12:00etan abiatuko da aurretik mokadu bat hartu ondoren.

Bazkaltzera sagardotegira joango dira garaiak eta anaiarteko topaketek eskatzen duten bezala.



Iazko apirilean Irunen egin zen topaketako kalebuelta. SNN



Ihoteetan dantzatzeko dantzak ikasten. SNN

## OIARTZUNEN IHOTEAK

Pasa den otsailaren 21 eta 23 artean ospatu ziren Oiartzungo Ihoteak. Ostiral arratsaldean eguzkia gorde ondoren iritsi ziren Intxixuak eta sorginak udaletxe aurreko Doneztebe enparantzara suaren ondoan egin zuten dantzarekin festari hasiera emanez.

Larunbat goizean Oiartzungo auzo ezberdinetako koadrilek etxeetako atariak garbitu eta bertan musikaren erritmoak agindu bezala dantzatu zuten. Koadrila hauek guztiak eguerdian Elizalden bildu ziren Madalensoro frontoian elkarrekin bazkaldu eta festa jarraitzeko. Jaten bukatu orduko musikariak giroa berotzen aritu ziren gogoia izan zuen guztiak dantza egiteko aukera izan zezan. Giroaren berri izanda gerturatu ziren festa hauetako beste pertsonaia berezi batzuk ere: arantzas josiak eta besarkada zailekoak diren Otegizonak batetik eta argazkian ikus daitekeen Zomorrozinkoa bestetik. Haurrek urte osoan ikusten ez dituzten pertsonaia hauekin jolasteko aukera izan zuten.

Ihoteei bukaera igande arratsaldean eman zitzaizen Intxixu eta sorginek Kataxulora bueltatu behar zutela ikusi zutenean.

## OIARTZUNEN HERRI MUSIKA ETA DANTZA TAILERRAK

Lehengo urtean martxan jarri ziren tailerrekin jarraituz, aurtin Soinueneak Oiartzungo Abaraxka Ludotekarekin elkarlanean eskaintza horrekin aurrera jarraituko du. Joan berria dugun otsailan ihoteak izango zirela kontuan hartuta festa horietan dantzaten diren dantzak, beste batzuen artean Ihote baltsa, landu ziren Intxixuen etorreraren aurreko bi larunbatetan.

Martxoan irlandar musika ezagutzeko aukera emango zaie hurrei Niamh Ní Charra musikaren laguntzarekin. Aurreko orrialdeetan agertzen den bezala, udaberriko kontzertuan parte hartzekoa da musikari hau eta goizean tarte bat eskainiko die hurrei.

Apirilean izango den Pazko Astean txalaparta izango da tailerren ardatza, maiatzean eta ekainean berriz dantza. Maiatzean dantza jolasak landuko dira, ekainaren 14an berriz erromeria izango da.



Haurrak Oiartzunen Zomorrozinkoa zirikatzen. SNN

### BISITARI KOPURUA

Azken hiru hilabeteetan: bisitari kopurua: 640  
Antolatutako taldeak: 19

Bisitari kopurua martxora arte: 39298

### WEB ORRIRA BISITAK

Azken hiru hilabeteetan: 14157

## Soinuenea - Herri Musikaren Txokoa

Tornola kalea, 6 - 20180 OIARTZUN

Tel / Fax 0034 943 493 578

soinuenea@soinuenea.org

www.soinuenea.org

